



Frantzisko Inazio
Lardizabal
Urretabizkaia

1806-1855

BIDeGILEAK

Egilea:

Arantzazu Muñoa

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Mikel Zalbideri
- Donostiako Elizbarrutiari
- Euskomedia Fundazioari
- Gipuzkoako Foru Aldundiari
- *Goierriko Hitzari*
- Zaldibiko Santa Fe elizari
- Zaldibiko Udalari
- Zumalakarregi Museolari

Zuzendaritza:	Jerardo Elortza
Argitaraldia:	1.a, 2010eko abendua
Ale-kopurua:	2.300
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria:	Edorta Sanz
Fotokonposizioa:	EPS, S.L., Vitoria-Gasteiz • www.eps-grupo.com
Inprimaketa:	Gráficas Santamaría, S.A., Vitoria-Gasteiz • www.graficassantamaria.com
ISBN:	978-84-457-3103-1 (Lan osoarena) 978-84-457-3104-8
L.G.:	VI - 541-2010



FRANTZISKO INAZIO LARDIZABAL URRETABIZKAIA

(1806-1855)

Euskal apaiz eta idazle iaio

XIX. mendearen lehen erdiko gizona da Frantzisko Inazio Lardizabal: Zaldibian jaioa 1806an eta 1855ean bertan hila. Herriko apaiz izan zen 30 urte inguruz, eta euskal idazle eta espezialista gisa nabarmendu zen XIX. mendearen erdialdean. Bi lan nagusi osatu zituen: 1856ko *Gramática Vascongada* eta 1855eko *Testamentu Zar eta Berrico Condaira*. Alor linguistiko, akademiko eta instituzionalean lehenak eman zion izena; bigarrenak berriaz, ospea ekarri zion mota guztietako herriarren artean: erlijio-liburu hori zela me-

dio nahiko ezagun egin zen Lardizabal, Bizkaiko eta batez ere Gipuzkoako euskaldunen artean, XIX. mendearen bigarren erdian. Horixe baieztatzen dute, besteak beste, Blanca Urgellek 1995ean argitaratutako *Testamentu Zarreko Kondaira* I-en «Atari Gisa»n eta Mikel Zalbidek 2006an argitaratutako *Gramática Vascongadaren* «Lardizabal eta bere euskal gramatika, perspektiba soziolinguistikoan» izeneko hitzaurrean. Hori hala izanik, bi autore horien lanak dira liburuxka hau osatzeko erabilitako iturri nagusiak.

ZALDIBIKO SEME

1806ko uztailaren 5ean jaio zen Frantzisko Inazio Lardizabal Zaldibiko Zubiaurre etxean. Herri gunean, Amondarain erre-karen ertzean eta elizatik hurbil dago Zubiaurre. Aralarren magalean eta Goierri-ren bihotzean sortu zen beraz, Lardizabal. Jaio eta hurrengo egunean bataiatu zuten herriko Santa Fe elizan. Bederatzi anai-arrebetan zaharrena zen bera. Zaldibiarra zuen ama, Maria Antonia Urretabizkaia eta Orendaingoa aita, Frantzisko Xabier Lardizabal. Herriko zirujaua zen azken hori. Aita zirujaua izanik, harrigarria badirudi ere, Zubiaurrekoa ez zen familia aberatsa. Orduko udal aurrekontuen ara-

bera herriko idazkariaren %10 irabazten baitzuen Zaldibiko zirujauak. Baina diru-sarrera xume horri garitan irabazten zituenak gehitu behar zaizkio, horixe izango baitzuten garai hartako zirujauak bizibide nagusi. Bistakoa da Frantzisko Inazio ez zela baserritar xumeen seme, eta argi dago gurasoek izan zutela modua berari eta beste hiru semeei goi-ikasketak emateko, baina ez ziren diruz gainezka zebiltzanetakoak ere.

Lardizabalen haur garaiko Zaldibia 1.200 biztanle inguruko herria zen, eta baserri-giroa eta abelazkuntza ziren bertan nagusi. Baserrian eta baserritik bizi ziren gehienak. Nekazaritza edota abeltzaintza



Frantzisko Inazio Lardizabalen jaiotza agiria



Lazkaoko beneditarren komentua, garai batean karmeldarrena izana. Lardizabal bertako ikasle izan zen aldi batez



Zaldibiko Santa Fe elizako erretaula nagusia, 1672koa

sofia eta teologia ikastera, eta gero Madri-la, apaiz-karrera han amaitzera.

1824an, ikasketekin aurrera jarraitzeaz gain, apaiz-bide formalari heldu zion Lardizabalek. Artean 18 urte bete gabe zituen. Urte horren hasieran tontsura eskatu zuen, hurrengo garizuman ordena txiki hori hartu nahi zuela adieraziz. Tontsura lehen gradu klerikala zen, obispoak ematen zuen gora-goko apaiz prestakuntzarekin jarraitzeko eta ilearen zati bat moztuz egiten zen ospakizuna. Tontsura justu-justu noiz lortu zuen ez dakigu, baina 1825eko uztaila baino lehen izan zen. Izan ere, 1825eko uztailan, 19 urterekin, bere herriko benefiziadu (kleroaren barruan lortzen zen maila bati deitzen zitzaien hala) izatera iritsi zen Lardizabal gaztea, Domingo Inazio Jauregiren postua hartuta. Bikario bat (horixe zen apaizen goreneko maila Zaldibiaren moduko herrietan) eta hiru benefiziadu ziren garai hartan Zaldibian. 1824tik, Frantzisko Inazio Lardizabalen amaren aldeko osaba, Frantzisko Inazio Urretabizkaia zen Zaldibiko bikario.

Benefiziadutza eskuratu arren, Lardizabal ez zen herrian gelditu. Apaiz-estudioekin aurrera jarraitu zuen Burgosen eta Madri-

len. 24 urterekin Frantzisko Inaziok presbiterotza (meza eta gainontzeko sakramentuak emateko gaitasuna ematen duen maila) lortu zuen eta, apaiz ikasketei amaiera emanik, herrira itzuli zen.

Handik aurrera, Lardizabal Zaldibian bizi izan zen batez ere. Hogeita bost urtez, 1830etik 1855era bitartean, bere herriko apaiz-langintza horretan jardun zuen nagusiki. Baina bai lehen karlistada garaian eta baita horren ondoren ere, herritik kanpora ere ibili zen, nahiz eta batzuetan egoerak hala behartuta izan.

USTEKABEKO AMAIERA

1854. urtean iritsi ziren Europatik *kolera morbo* izurritearen lehen aztarrenak Gipuzkoara. Gaitzak ez zuen seinale handirik utzi urte hartan. Baina hurrengoan, izurrittea piztu zen berriro. 1855eko udan iritsi zen *kolera morbo asiatico* hori Gipuzkoara eta 4.395 hildako utzi zituen. Abuztuaren erdi alderako 32 herritan zabaldua zegoen gaitza. Amaierarako, berriz, 64 herritara iritsi zen. Abuztuaren 11n nabaritu ziren



Lardizabalen jaiotetxearen aurrean dagoen Kanpain zubia, 1569 eta 1612 urteen artean eraikia

894 J. LUIS MUNOYA Y M.^a CARMEN MENDINUETA

	Atacados	Muertos	Proporción de atacados	Proporción de muertos
Villarreal	39	21	6,57	3,60
Oyarzun	204	77	6,20	2,37
Legerreta	38	19	6,84	3,47
Escoriaza	116	75	6,58	4,25
Hernani	136	78	6,04	3,46
Oñate	297	154	6,04	3,65
Salinas	37	26	5,66	3,98
Zaldivia	55	34	5,21	3,35
Beasain	56	43	5,35	4,11
Idiazabal	55	34	5,91	11,40
Cizurquil	49	28	5,89	3,48
Irún	137	82	5,30	3,15
Aya	97	25	5,08	1,39
Albistur	49	27	5,88	3,22
San Sebastián ...	492	275	4,85	2,72
Azcoitia	153	69	4,38	7,97
Asteasu	36	12	4,50	1,50
Gaviria	43	21	4,91	2,42
Aizarnazabal ...	16	9	3,00	
Elduayen	6	4	3,17	0,34
Ichaso	24	14	4,06	2,63
Hernialde	9	8	3,86	3,43
Soravilla	5	5	3,44	3,44
Villafranca	23	12	2,92	1,65
Segura	187	96	2,08	1,69
Berástegui	27	4	2,21	0,32
Vidania	6	5	1,45	0,82
Eibar	19	11	1,07	0,62
Elgueta	30	18	1,55	0,98
Placencia	29	16	1,74	0,96
Ezquioga	68	38	10,08	5,80
Abalcisqueta ...	5	2	0,73	0,29
Régil	1	1	0,32	0,32
Berrobi	11	7	0,78	0,50


1855ean *kolera morbo asiatico*ak Gipuzkoako hainbat herritan utzitako hildakoen kopurua

Zaldibian *kolera morbo asiatico*aren lehen ondorioak. Abuztuaren 13tik 22ra gogor hedatu zen eritasuna eta, gutxika-gutxika, desagertuz joan zen, urriaren 6an erabat alde egin zuen arte.

Gaitzari aurre egiteko ahalegin guztiak egin zituzten arren, arrasto sakon eta mingarria utzi zuen herrian: 36 lagun hil ziren Zaldibian, izurriteak eraginda. Hildakoetako bat Frantzisko Inazio Lardizabal bera izan zen, herriko benefiziadua eta euskal idazlea. Euskalgintzaren gurpilean bete-betean ari zela, 1855eko

abuztuaren 20an zendu zen Lardizabal, 49 urterekin.

Ez zen herrian koleraz hildako bakarra izan, ezta familian ere. Bera hil baino egun batzuk lehenago, hasteko, ama hil zitzaion. Arreba bat ere gaitz berak eraman zuen, handik bizpahiru astera. Osaba bikarioa ere, azkenik, kolerak jotako gaixoei laguntzen ari zitzauela zendu zen. Frantzisko Inazioren hileta-elizkizunak bere anaia apaizak egin zituen. Baita bere arrebarenak eta osabarenak ere. Familiako lau lagun galdu ziren, hortaz, egun gutxiren barruan.



Frantzisko Inazio Lardizabalen heriotza agiria



Harreman-sarea Zaldibian eta handik kanpora

Severo Andriani, Iruñeko apezpikua

Zer harreman-modu izan zituen Lardizabalek Zaldibian? Eta zer harreman-mota zituen herritik kanpora? Zer-nolako jarrera hartu zuen lehen karlistadaren garaian? Eta ondoren? Zer harreman modu izan zuen eliz esparruan, eta zer-nolakoa probintziako agintaritzaren alorrean? Zer harreman-sare eratu zuen euskalgintzaren sailean?

ELIZ HIERARKIAREN KONFIANTZAZKO GIZON

Elizako aginterekin lotura handi samarra izan zuen Frantzisko Inazio Lardizabalek. Izan ere, garai hartan Iruñeko elizbarrutian zegoen Gipuzkoa gehiena eta

bertako obispoarekin, Severo Andrianirekin adiskidetasun-harreman sendoa izan zuen. 1830etik 1861era izan zen Andriani Iruñeko apezpiku, eta bere izendapenez eliz notario eta monja-komentuen ikuskari izan zen Lardizabal. Jose Garmendia Arruabarrenak 1968an *Diario Vascon* idatzi zuenez, «Lardizabal fue amigo de [...] Severo Andriani, obispo de Pamplona, quien le honró con los cargos de notario eclesiástico y visitador de conventos de religiosas». Ignacio Belaustegik esana duenez, gehiago ere bazen: haren esanetan, Gipuzkoako eliz gauzei zegokienez, Iruñeko apezpikuak ez zuen erabaki bat bera ere hartu nahi izaten Lardizabalekin kontsultatu gabe.



Aralar, Zaldibi aldetik begiratuta

Andrianiren eta Lardizabalen arteko loturaren beste adibide bat jartze aldera, *kolera morbo asiaticoa* Gipuzkoara iritsi zeneko pasartea gogora daiteke. 1854an iritsi zen *kolera morboa* kristauen fede-biziera epe-laren ikuspegitik interpretatu zuen Andrianik. Kristauak ez ziren elizaren legea behar bezala betetzen ari eta jainkoak, horrexegatik, kastigua bidaltzen zien guztiei: «un azote que la cólera de Dios, justísimamente irritada por nuestros extravíos y gravísimos pecados, descarga sobre nosotros...». Hala irakur daiteke Jose Goñi Gaztanbidek 1991n argitaratutako *Historia de los obispos de España* lanean jasotako eskutitzean: *Carta pastoral del Excmo. e Ilmo. Sr. D. D. Severo Andriani, obispo de Pamplona,*

al clero y pueblo de su diócesis (Pamplona, 1854).

Kristauen bizibidea jainkoaren legera itzularazten laguntzeko bederatziurrenak ateratzea gomendatu zuen Andrianik, bestea beste. Frantzisko Inazio Lardizabal izan zen, Goierri aldean, hartarako bederatziurrena euskaraz idatzi eta Tolosan argitara eman zuena. Azkenik, Lardizabalen *Testamentu Zar eta Berrico Condaira* argitara emateko onespen azterketa ere S. Andrianiren esku joan zen.

KARLISTEN LAGUN

Karlistada garaia oso une bizia izan zen Lardizabalentzat. Badirudi oro har, herri xehea, batez bestean, karlisten alde agertu zela. Aldiz, zezakeen jendea, estudioak egindakoa eta karguren bat zuena (notario-sekretarioa, herriko maisua...) liberalen aldeko azaldu zela ematen du, nagusiki behintzat. Apaizen artean, kontuak ez zeuden hain garbi. Liberalen alde atera ziren apaiz asko, eta karlisten alde beste mordo bat. Zaldibian ere, apaiz guztiak ez ziren iritzi bereko.

OBISPO JAUNAREN BAIMENA.

NOS EL DOCTOR D. SEVERO ANDRIANI,

POR LA GRACIA DE DIOS Y DE LA SANTA SEDE APOSTÓLICA, OBISPO
DE ESTA DIÓCESIS, SENADOR DEL REINO, CABALLERO GRAN-
CRUZ DE LA REAL Y DISTINGUIDA ORDEN ESPAÑOLA DE
CARLOS 3.º &c.

Hacemos saber á los Señores que las presentes vieren que ante Nos se presentó una obra intitulada *Historia del antiguo y nuevo testamento* vertida al idioma Vascongado, dialecto de Guipúzcoa, por el Presbítero D. Francisco Ignacio de Lardizabal Beneficiado de la Iglesia Parroquial de la villa de Zaldibia, solicitando nuestra licencia para la impresión, y habiéndola remitido para su escámen al Doctor D. Ruperto de Iturbide Presbítero Vicario de la Parroquial de San Juan Bautista de esta Ciudad, por su censura consta que la citada obra no contiene cosa alguna contraria á los Dogmas de Nuestra Santa Religión, ni á las buenas costumbres, y que su impresión puede ser muy útil para el país vascongado. Por tanto concedemos licencia para la impresión de la referida obra, debiéndose poner al principio de cada ejemplar de la misma una copia de esta nuestra Licencia. Dada en Pamplona á diez y ocho de Junio de mil ochocientos cincuenta y cinco. — Severo. Obispo de Pamplona. — Por mandado de S. F. I. el Obispo mi Señor, Don Luis Barasoain, Secretario.

Testamentu Zar eta Berrico Condaira argitaratu ahal izateko Severo Andriani jaunak emandako baimena

Hamazazpi urte zituela, tontsura eskatu nahi zuela esanaz idatzi zuen Lardizabalek Iruñeko gotzaindegira. Eskaera egiteaz gain, hauxe zioen Lardizabalen gaineko espedienteak: «[...] consta del certificado que se presenta añadiendo haver estado decidido por la Causa de la Religion y del Rey siendo enemigo del sistema constitucional asi como sus Padres. Pamplona 4 de Febrero de 1824» Firma: «Exmo Sr. A nombre del Sn p.te Pedro (-) de Asturias».



Tropa karlistak Ordiziako elizari su ematen 1834an.
Irudia 1844. urtekoa da (Zumalakarregi Museoa.
Gipuzkoako Foru Aldundia)

Hamazazpi urterekin egin zuen aitormen horren arabera, Lardizabal bete-betean sartzen zen erregetiar-foruzaleen sailean. Baina, testigantza horrek bakarrik ezin du oinarri sendorik eman Lardizabalen kokaera ideologiko zehatza egiteko. Izan ere, kontuan izatekoa da liberalen hirurteko (1820tik 1823rako) agintaldiaren ondotik botere osora itzuli berria zela Fer-

nando VII.a, eta liberalen kontrako jarre-
ra gogorra hartu zuela. Beraz, giro hartan
salbokonduktu ederra izan zitekeen eliza-
ren aldeko eta erregetiar agertzea.

Baina, zer jokabide izan zuen Frantzisko
Inaziok 1833tik 39rako gerra-garaian? Zer
egoera bizi zen Zaldibian, urte bitarte har-
tan, bertako elizgizonen artean? Bost apaiz
aipatzen dira Zaldibian, lehen karlistada-
garaian: Frantzisko Inazio Urretabizkaia
bikarioa, Lardizabalen osaba; Frantzisko
Inazio Lardizabal eta bere anaia Joxe Mari,
biak benefiziadu; Juan Bizente Mendizabal,
benefiziadu hori ere; eta, azkenik, Bizente
Etxabe tontsuradun benefiziadua. Zaldi-
biko egoeraren berri ematen duen doku-
mentazio hori karlisten «comisarios de vi-
gilancia» direlakoek eskuratua, egina edo
bideratua da. Eta horren arabera, karlisten
kontrarioak dira argi eta garbi, herriko bika-
rioa (Lardizabalen osaba Urretabizkaia) eta
Juan Bizente Mendizabal. Aldiz, karlisten
aldeko dira, nabarmen, Lardizabal anaiak:
bai Frantzisko Inazio eta bai Joxe Mari be-
neficiaduak. Etxabe tontsuradun-benefizia-
dua, azkenik, dokumentuok diotenez, ez da
alde batera edo bestera makurtzen.



Beasaingo Igartza Jauregia ageri da irudian, Erdi-Aroko sistema
feudalaren adierazle. Aldi horren ondorengo eta industriagintza
berriaren aurrekoa da Lardizabal

Kontu horiek direla-eta Frantzisko Inaziok
ez zuen egonaldi gozoa izan herrian. Bere
pentsaeragatik, sermoietan esandakoagatik
edo dena delakoagatik, atxilotu egin zuten
eta, herritik kanpora eramanez, preso egon
zen Ordizian behin baino gehiagotan. Az-
kenean ihes egin zuen eta Nafarroan bizi
izan zen denbora batez. Ez dakigu, zehatz-
mehatz, herrira noiz itzuli zen. Baina gerra
ostean, benefiziadu mailara itzuli zen Lar-
dizabal, eta herriko bikario izan zen berri-
ro Frantzisko Inazio osaba, 1855eko izurri-
tean biak bateratsu hil ziren arte.

LIBERAL MODERATU FORUZALEEN LANKIDE

Lehen gerrate karlista amaitu ostean, foruzale liberal moderatuak foru-sistema kamustuari gaitasun-ahalmen berriak erans-



Industrializazioaren aurreko gizona da Lardizabal.
Industrializazioaren ispilu, Beasaingo CAF
enpresako tximini bat ageri da argazkian

ten hasi zirenean, lotura sendoa eratu zen Lardizabalen eta Probintziako foru-agintearen artean. Paradoxa dirudi horrek, Lardizabalek hamazazpi urterekin egindako testigantzak ikusita eta «comisarios de vigilancia» deiturikoez esandakoa irakurrita. Baina horrelaxe izan zen. Batzar Nagusien eta Foru Aldundiaren konfiantzazko gizona izan zen Lardizabal, herri aginteen hizkuntza- eta hezkuntza-plangintza hezur-mamitzeko orduan.

Hasteko eta behin, 1846an Lardizabalen zerbitzuez baliatu zen Probintzia, euskarazko materialen onespenez azterketa egiteko: bera izan zen, esate baterako, Juan Ignazio Iztueta Zaldibiko euskal idazle liberal sonatuaren *Guipuzcoaco Condaira* liburua argitaratzea merezi zuen edo ez aztertzeko Probintziak aukeratu zuen aholkulari espezializatua. Horrezaz gainera ere, indarrean zegoen sistemarekin lotura ugari izan zituen Lardizabalek. Geroago ikusiko dugun moduan, Gipuzkoako eskola guztietara bidaltzeko gramatika, elebiko hiztegia eta itzulpenetarako materiala prestatzeko eskatu zion Gipuzkoako Foru Aldundiak.



Juan Ignazio Iztueta (1767-1845), Zaldibiko idazlea eta Lardizabalen garaikidea

GARAICO ZENBAIT EUSKAL IDAZLEREN GERTUKO

Juan Ignazio Iztueta izan zuen Lardizabalek, itxura guztien arabera, hegoaldeko euskal idazleen artean ezagunena. Zaldibiarra zen Iztueta ere, eta beraz, ez zen harritzekoa. 1767an jaio eta 1845ean hil zen idazle famatua. Lardizabalek ezaguna ez

ezik, gertukoa eta konfiantzazkoa ere bazuen Iztueta. Esan berri dugun moduan, bere *Guipuzcoaco Condairaren* onespena Lardizabalek egin zuen, 1846an: «correspondiendo a la confianza que se digna depositar en mí para la revisión y dictamen de la obra que D.n Juan Ignacio de Iztueta ha dejado en su defunción escrita con el título Historia de Guipuzcoa [...] por lo cual juzgo que antes de dar á la prensa, seria conveniente que se corrija algun tanto asi en esta parte, como en todo lo demas, para cubrir el vacio que el Señor Iztueta no lo pudo por el motivo arriba indicado». Horrezaz gainera, Iztueta hil zenean Lardizabal izan zen bere testamentuaren betearazle edo albacea gisa aritu zenetako bat. Jesus Elosegik Iztuetari buruz idatzitako liburuan, Iztuetaren beraren aitortzenak jasotzen ditu eta hala dio: «Nombro por mis testamentarios y alvaceas al mismo Mancisidor y Dn Frcº Ignacio de Lardizabal Pro. Beneficiado de la Parroquial de esta villa».

Juan Ignazio Iztueta kenduta, ez dirudi Lardizabalek gertuko harremanik zuenik beste euskal idazleren batekin. Lardizabalek eus-

kal idazleekin zuen harreman mugatu hori ikusita, adituek diote Lardizabal nahiko bakarrik aritu zela. Baina Iztuetaz gain, Lardizabalek ezagutzen zituen euskal idazleen artean beste zaldibiar bat ere aipatu behar da: bere aurretik eta 1829an hil arte herriko benefiziadu moderno izandako Frantzisko Inazio Jauregi (1767-1829), *Galbarioko Bidearen* egilea, hain zuzen ere. Uste izatekoa da bere lana ondo ezagutuko zuela, baina

aurrez aurreko harremana txikia izango zuten biek ziurrenik, bien arteko adin-tartea kontuan badugu.

Herritik kanpokoetan Fr. Bartolome Santa Teresa (1768-1835) ezagutuko zuen, itxuraz, Lardizabalek, Lazkaoko komentuan ikasle izandako garaitik. Azkueren ustez, hori baino gehiago ere esan liteke: Fr. Bartolomeren ezagupide horri zor izango litzaioke Lardizabalen euskarak duen kutsu bizkaitarra.



1839ko abadea (Zumalakarregi Museoa.
Gipuzkoako Foru Aldundia)



Zaldibiko Santa Fe elizako ponte



Euskara gaietan espezialista

*Testamentu Zar eta Berrico
Condairen azala*

Gutxik bezalako euskara jatorra egiten zuen Lardizabalek. Idazle iaioa zen eta euskal gaietan trebea. Bere bizitzaren parterik handiena Zaldibian egin zuen, baina ez zen Zaldibira begira bakarrik egon. Gipuzkoa osoa hartzen zuen bere jardunak, eta sarritan badirudi ikuspegi zabalagoarekin aritu zela. Idatzizko alorrean euskara landua, jaso eta ongi garatua erabili zuen Lardizabalek. Ondorioz, euskal idazle eta aditu fidagarriaren sona eskuratu zuen. Lardizabal ez zen euskal liburuen zale huts, ezta zenbait liburuxkaren idazle xume ere. Hortik gorako espezialista zen bera, garaiko zenbait idazleri, argitartaileri edo Probintziari berari aparteko

berme-garantia eskaintzen ziona. Horrela bakarrik uler daiteke 1852an edo lehenago Gipuzkoako Batzar Nagusietatik edo Foru Aldunditik euskaingintzan jarduteko eskaintza, enkargua edo agindua jaso izana eta, enkargu horren haritik, gure literaturan eta euskal ikaskuntzen alorrean arrasto argia utzi duten liburu nagusi biren egilea izatea.

Testamentu Zarreco eta Berrico Condairek fama eman zion Lardizabali, eta lan horretxek sartu zuen idazlea euskal literaturaren historiako liburuetan. Alderdi linguistiko, akademiko eta instituzionalean, berriz, Gramática Vascongadak eman zion sona.

TESTAMENTU ZARRECO ETA BERRICO CONDAIRA

Lardizabal izurriteak jota hil zen urtean, 1855ean alegia, Tolosan argitaratu zen bere *Testamentu Zarreco eta Berrico Condaira*, Gorosabel liburugilearen etxean, herri agintariak diruz ordainduta. Zabal-kundeari dagokionez, hauxe da bere obra nagusia. Gipuzkoan eta baita Gipuzkoatik kanpora ere asko hedatu zen Kondaira sakratu hori, XIX. mendearen bigarren erdialdean batez ere. Gainera, asko irakurri zen eta asko entzun, liburuak ez baitziren norberarentzako bakarrik irakurtzen; baita boz gora ere, besteek entzun zeza-ten. Zenbaiten esanetan, Gregorio Arruek Santa Genovevaren bizitzaz egindako irakurgaiarekin batera *Testamentu Zarreco eta Berrico Condaira* zen XIX. mende horretan eta hegoaldean euskaraz gehien irakurritako liburua. Gainera, Lardizabalen Kondaira ez zen goi mailako jendearen artean soilik irakurri eta entzun, baita jende xehearen artean ere. Horretxen erakusle da izan duen argitaraldi kopurua: sei aldiz argitaratu da 1855az geroztik: hiru osorik eta hiru zatika.

Izan duen argitaraldi kopuruaz gainera, kontuan izan behar dira denboran zehar autore batek edo bestek egin dituen aitorpenak ere. Lardizabalen *Condairaz* hitz egin duten askok ikusi ahal izan dute herrian edota auzoan nolako atsegintasunez irakurri edota entzuten zen. Ignazio Belaustegi izan zen agian, 1901ean, *Euskal-Erria* aldizkarian Testamentu horren arrakastaz lehenengo aipamena egin zuena: «El público recibió esta obra con cariño y entusiasmo y apenas hay hogar en donde todos los días no se lea algún trozo de esta historia, siendo de admirar la atención con que nuestros hijos del campo escuchan sus sublimes narraciones». Antzera zioen Eduardo de Urrutiak *Euskal Erriaren Alden* 1922an: «Contribuyó grandemente á despertar en el pueblo la afición á la lectura euskérica. El pueblo recibió este libro con cariño y entusiasmo, siendo raro el hogar vasco que no poseyera un ejemplar, en el que todos los días se leía algún trozo». Villasanteren hitzetan «pocos libros han sido tan leídos como éste por el pueblo euskaldun». Mitxelena-ren aburuz, berriz, «es probablemente la obra que ha sido más leída en Guipúzcoa



2006ko ekainaren 30ean Zaldibiko Udalak eta Euskaltzaindiak Frantzisko Inazio Lardizabalen omenezko plaka jarri zuten idazlearen jaiotetxean (Arkaitz Apalategi. *Goierriko Hitza*)

en los últimos cien años, y no sin razón». Bereak dira *EGAN*en 1957an argitaratutako beste hitz hauek ere: «Agertu ezker ederki zabaldu zen Gipuzkoa'n barrena kondaira au, beste edozein euskal-liburu baiño geiago bear bada. Eta ongi merezi zuen orren zabaldua egotea». Alfonso Irigoienek 1957an *Condairaren* hitzaurrean zioenez, «leengo mendeko erlegiño-liburu bat, bere garaiean izugarritzko zervitzua egin zuena eta Gipuzkoako etxerik geienetan falta etzena». Fernando Mendiabalek 1956an *Eusker*a aldizkarian esan zuenez, «irakurle asko zituan bein batean, baña gaurregun urri samar dituala uste dut». Bide beretik doa Omaetxebarría ere: «Pocos libros han sido leídos por el público general tanto como éste, lo cual

significa algo a su favor». Santi Onaindiak, azkenik, 1973an argitaratutako *Euskal Literatura (II)*-n, honako hau esan zuen: «Aspertu gabe irakurri du gure erriak. Ni txikitxo nintzala, igande arrastietan batez ere, sendiko guztiok sukaldean edo zugaizpean bildu ta aitak irakurtzen zigun zati bat».

Testamentu Zarreco eta Berrico Condairaren hitzaurrean Lardizabalek berak adierazten duen moduan, helburu jakin batekin idatzi zuen liburu hau, herritar euskaldunen artean erlijio-prestaera sendoa zabaltzeko: «itzcuntza gucietan dituzte beren liburúac, eracusten diezteenac, Jaungoicoac eguin dituela, Escritura Santác dion, gauza miragarriac: eta zuec ere, nire erritar maiteac, mesede au mereci cenduten, ceron beguiacqin gucia arguiró cecusaten».

Testamentu Zarreco eta Berrico Condaira argitaratzeko baimena Iruñeko apezpiku Severo Andrianik eman zuen 1855eko ekainaren 18an, Lardizabal hil baino bi hilabete lehenago. Lana noiz hasi zuen, ordea, ez da jakina, ez dakigun moduan Lardizabalen euskal gaietarako zaletasuna noiz piztu eta gauzatzen hasi ote zen. *Testamentu*

Zarreco eta Berrico Condairari dagokionez, hipotesi bat egin du Blanca Urgellek: Lardizabalek «Itz-aurrea»n Larregiren liburua aipatzerakoan, «orain irurogeitamar urte diralarik» argitaratu zela esaten du. Beraz, horri jarraituz, 1845ekoa litzateke *Testamentu Zarreco eta Berrico Condaira* (egileak 39 bat urte zituenekoa); edo gutxienez, hitzaurrea 1845ekoa litzateke. Informazio horren arabera, aski goizik hasiko zen Lardizabal euskal gaiak lantzen.



Andres Urrutia euskaltzainburua, Patxi Aierbe 2006an Zaldibiko alkate zena, eta Mikel Zalbide euskaltzaina ageri dira, Lardizabalen erretratua aurrean dutela, bere omenaldian (Arkaitz Apalategi. *Goierriko Hitza*)

GRAMÁTICA VASCONGADA

1856an argitaratu zen Lardizabalen bigarren liburua: *Gramática Vascongada* izenekoa. Donostian kaleratu zen, Ignacio Ramon Barojaren etxean. Hortxe eman zuen Foru Aldundiak argitara. Hurrengo argitaraldia ere Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik etorri zen 150 urte geroago, 2006an inprimatu baitzen bigarrenagoz. Badirudi, beraz, ez zuela *Testamentu Zarreco eta Berrico Kondairak* adinako arrakastarik izan. Baina, ez zen ohiko izaera zuen liburua. Ez zen ez eliz liburua, ez dotrina eta ezta debozioko irakurgai ere. XX. mendera arte euskarazko liburuen %90 inguru erlijiozkoak izan zirela jakinik, liburu berezia zen *Gramática Vascongada*. Baina liburua, berezia izan arren, erabateko berrikuntza ere ez zen izan. Baziren lehendik antzeko lanak. Euskarazko lehen gramatika, hegoaldean, Manuel Larramendi andoaindarrak osatu zuen eta 1729an argitaratu *El Imposible Vencido. Arte de la Lengua Bascongada* izenarekin. Adituek diote Larramendik hegoaldean urratutako ildotik egin zuela Lardizabalek aurrera eta, hain zuzen ere, bera izan zuela eredu.



Gramática Vascongadaren azala

Kontuak kontu, Lardizabalen *Gramáticak* hizkuntza bera zuen aztergai eta beraz, ulertzekoa da *Condairak* adinako arrakas-tarik ez izana. Horrek, ordea, ez du beste zenbait alorretan lan honek izandako ga-rantzia ezkututzen.

Lardizabalek obra hau idazteko bi moti-bo nagusi aipatu behar dira:

- a) Gipuzkoako agintariek egindako enkargua zen Lardizabalen grama-tika. 1853an Arrasaten egin ziren Batzar Nagusien aktetan, hitzez hitz, «obras que por encargo de la provincia estaba trabajando el Se-ñor D. Francisco Ignacio de Lardi-zabal» aipatzen da.
- b) Lardizabalen beraren deliberamen-dua. Berak hala nahi zuelako egin zuen gramatika-liburua. Lardiza-balen beraren hitzak dira ondoko hauek: «impulsado únicamente del deseo de mejorar la escasez que se nota de libros de esta clase». Esko-letarako ikasmaterial gutxi zegoela ikusi zuen Lardizabalek, eta eska-sia horri erremedioa bilatu nahirik ari zen lanean.

Lehen hipotesia indartzen du liburua-ren hitzaurrean datorren informazioak ere. Lardizabal bera hila zenez, Ramon Gerekak, Foru Aldundiaren idazkariak, egin zion gramatika-liburuari hitzaurrea, eta bertan ondoko hauxe dio: «el autor de esta gramática se comprometió á es-cribirla, impulsado de las diferentes es-

citaciones que le dirigiera la Diputación foral de esta M.N. y M.L. Provincia de Guipuzcoa».

Larramendirena ez bezala, erabat gramatika liburu hutsa da Lardizabalena: ez dauka hizkuntzaren apologiazko edo goraipamenezko pasarte bakar bat ere. Baina Gerekaren hitzaurrera joz geroz, argi ikusten da ez zela euskara irakasteko eta euskara ikasteko soilik prestatu, baita euskara goratzeko ere: «ella (la lengua vascongada) es tan antigua en España y ha sabido conservarse en su primitiva pureza a través de tantos siglos y de tantas vicisitudes políticas, es muy digna de que sea conocida [...] Pero deseando la Provincia no dejar sepultar en el olvido á una lengua que ha formado y forma la base principal de la existencia social del pueblo vascongado, ha resultado publicar la presente gramática, no como una obra perfecta del arte, sino como un monumento erijido á su memoria...».

Gipuzkoako Aldun Nagusiak 1853ko iraillean, Lardizabali egindako erantzun-idazkian antzeko zerbait dio: «siendo su obgeto, imprimir y publicar esta obra, para que por



Zaldibiaren argazkia, airetik aterea

ella pueda un día llegar á ser conocida de los hombres una lengua tan antigua y tan poco parecida á las demas del mundo». Azkenik, ildo beretik doa 1854ko Donostiako batzaraldien akta-agirian esaten dena. Batzar Nagusien 1854ko bilaldiko aktak honako hau dio konkretuki: «por el realce que ella iba á dar á la lengua Vascongada y por la ventaja que podia proporcionar a los que quisiesen dedicarse á su estudio y enseñanza...». Bi arrazoiak aipatzen dira hor: euskarari indarra ematea eta euskara aztertu edota erakutsi nahi zutenei laguntzea.

PROLOGO.



Entre los escritores que más se han ocupado de cosas de España, está muy recibida la opinion de que la lengua vascongada es una de las primeras que se hablaron en ella; y esta opinion que trae su origen desde los tiempos mas remotos, tiene á su favor la circunstancia de que la hacen verosímil y recomendable, 1.º las noticias que han dejado consignadas en sus obras los historiadores mas antiguos de dentro y fuera de España; 2.º las medallas é inscripciones que se han encontrado en diferentes puntos del pais, y que han sido descifradas por los arqueólogos de mas reconocida inteligencia; y 3.º los nombres de varias provincias, ciudades, montes y rios, que á pesar de la adulteracion que han sufrido con el tiempo, revelan su origen vascongado.

El saber como vino esta lengua á España, quien la trajo y cuando, es cosa que parece hallarse fuera del alcance de los hombres; porque, aparte de ciertas conjeturas que se han hecho y pueden hacerse con mas ingenio que verdad, ni la historia ni la tradicion arrojan bastante luz para averiguar su origen que se pierde en la oscuridad de los tiempos.

Dejando, pues, esta materia para los que se consideren mas competentes en ella, nos limitaremos a decir: que allá cuando la Península Ibérica carecia todavía de aquel principio de unidad gubernativa que constituye á las Naciones, y cuando cada ciudad ó pueblo, compuesto de una tribú mas ó menos numerosa formaba un Estado aparte é independiente de los demas que le rodeaban; parece muy probable que fuese la lengua vascongada la que dominase en mucha parte de ellos, hasta que las invasiones de los estrangeros, ganando terreno en la Península, hiciesen retirar á sus primeros habitantes y á la lengua vascongada con ellos á los terrenos mas escabrosos é inaccesibles de ella. Lo cierto es que cuando los historiadores estrangeros empezaron á hablar de las diferentes razas y pueblos de que se hallaba compuesta la Península, colocaron á los Vascos en las ásperas montañas del norte de España, montañas donde precisamente se ha conservado y aun se conserva la lengua vascongada, siendo esta la prueba mas evidente de que nunca los Vascos sufrieron el yugo estrangero y nunca su raza ha sido mezclada con la de los invasores, conservándose hoy tan pura, como se conserva original su carácter distintivo, sin que ni el trascurso de los siglos ni las innumerables guerras de que ha sido teatro la Península, hayan bastado para hacer variar ni su índole, ni su lengua, ni sus leyes, ni sus costumbres patriarcales.

Hecha esta reseña histórica de la lengua vascongada, permitido nos será decir:

Gramática Vascongadaren hitzaurrea

GRAMATIKA, ELE BIKO HIZTEGIA ETA ITZULPENETARAKO MATERIALA

Gipuzkoako Foru Aldundiak hiru liburu prestatzeko enkargatu zion Lardizabali,

—23—

hacía á la Provincia la Sra. D.ª Maria Concepcion de Altuna, viuda de D. Valentin de Olano; y altamente satisfecha de los nobles sentimientos que demostraba en favor del pais por las pruebas de aprecio y estimacion que habia dado á su malogrado esposo, erigiendo á su memoria un precioso monumento, acordó que se hiciera constar así en acta.

La Junta se enteró con agrado del estado de adelantamiento en que se encontraban las obras que por encargo de la Provincia estaba trabajando el Sr. D. Francisco Ignacio de Lardizabal, Presbítero Beneficiado de la Iglesia parroquial de Zaldibia, sobre la lengua bascongada; por cuya razon y para que le sirviese de estímulo en la continuacion de sus tareas literarias, acordó que se le diese á entender la satisfaccion con que habia llegado á saber el afanoso empeño con que se dedicaba al estudio de la lengua bascongada con el objeto de escribir una gramática, un diccionario doble y una obra que sirviese de testo para la traduccion del bascuence al castellano, no dudando que continuaria en esta tarea con aquella constancia que la Provincia se prometia de su celo y claro talento.

La representacion de la Aicadía mayor de Arerria llamó la atencion de la Junta sobre los daños y perjuicios que ocasionaba á los habitantes de los pueblos de Arriarán é Ibañeta la determinacion que habia adoptado el Sr. D. Luis Gaytan de Ayala de prohibir absolutamente la pasturación de ganado en los montes de su propiedad, sin tener en cuenta la libertad que con arreglo á fuero tenia el ganado para pasturar en los montes no acotados durante las horas del dia, ó lo que es lo mismo, de sol á sol. Por cuya razon y porque eran muy considerables las multas que los habitantes de aquellos pueblos habian tenido que satisfacer por vía de prenda y costas de diligencias judiciales, pedia á la Junta se sirviese hacer una declaracion que, siendo conforme á las disposiciones forales, pudiese dejar á los habitantes de aquellos pueblos en el uso y goce de la prerogativa que hasta ahora habian tenido de hacer pasturar libremente á su ganado en los montes que no estuviesen acotados, retirándolo á sus moradas á las horas en que entraba el sol. Enterada la Junta de la precedente exposicion, acordó que pasara á la comision de fomento, para que en su vista propusiera aquello que le pareciese mas conforme al espíritu del fuero.

Con lo que se dió fin á esta Junta.—*El Marqués de la Regalia.*—Por la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa, su Secretario-Ramon de Guereca.

JUNTA V.

En la N. y L. villa de Mondragón á seis de Julio de mil ochocientos cincuenta y tres, se reunieron en Junta los mismos Sres. Caballeros Pro-

1853an Arrasaten egin ziren Batzar Nagusien akta. Bertan dio Lardizabal, Probintziaren enkarguz, *Gramática Vascongadaz* gain, beste bi lan ere ari zela prestatzen

ez gramatika bakarrik: «las obras que por encargo de la Provincia estaba trabajando el Señor D. Francisco Ignacio Lardizabal [...]: una gramática, un diccionario doble y una obra que sirviese de testo para la traduccion del bascuence al castellano». Euskal gramatika, ele biko hiztegia eta hizkuntza batetik bestera ongi itzultzen erakusteko materiala sortu eta argitara-


tu nahi zuen Probintziak. Horixe diote 1853an Arrasaten egin ziren Gipuzkoako Batzar Nagusietako agiriek. Lardizabalen esanak ere jasotzen dira aipatutako agirietan: «en un principio me dediqué á la formacion de las tres obras sobredichas, y para los que tengo ya compilados en parte materiales».

Ramon Gerekak *Gramáticari* egin zion hitzaurrean argi ageri da 1856 aurretik ere bazuela Gipuzkoako Foru Aldundiak gramatika edo antzeko lanen batzuk argitaratzeko borondatea, eta hala egin ez bazuen, bestelako arrazoi batzuengatik izan zela: «Tal vez parecerá extraño que se haya esperado á una época en que la lengua vascongada está casi tocando su fin, para escribir una grámatica con reglas para aprenderla; pero es bien que se sepa, que antes de ahora ha tenido la Provincia de Guipúzcoa el pensamiento de mandar escribir y publicar una gramática vascongada; y si no ha conseguido su objeto, es porque circunstancias independientes de su voluntad han impedido la realización de este proyecto».

Jakina da atzetik zetoze la kontuak: Gipuzkoako Batzar Nagusiek, 1830eko ekainean,

Arrasaten bilduta, batzorde bat eratzea erabaki zuten. Industria, merkataritza eta euskara nola sustatu erabakitzeko sortu zuten batzordea. Lau txosten bildu zituen batzordeak. Izenik ez daraman arren, euskarari dagokion txostena Agustin Pascual Iturriaga (1778-1851) idazle hernaniar handiak egin zuen.

Iturriagak euskararen inguruko hiru gai aipatzen zituen bere txostenean: euskarak



Agustin Pascual Iturriaga (1778-1851), Hernaniko euskal pedagogo eta idazlea (Euskomedia Fundazioak utzia)

bizirik irauteko prestigioa baino gehiago behar duela; lehen mailako eskoletan euskarari kalte handia ari zaiola egiten; eta erdarak erakusteko metodologia desegokia erabiltzen dela. Egoera horri aurre egiteko eta euskara sustatzeko lau mailatako plangintza egin zuen eta maila bakoitzerako liburu bana idatzi: lehen mailarako, *Arte de aprender a hablar la lengua castellana para el uso de las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa* (1842); bigarren mailarako, solas liburu bat, galdutzat jotzen dena; hirugarren mailarako, *Diálogos basco-castellanos para las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa* (1842); eta azkenik, laugarren mailarako «un compendio de gramática basco-castellana» aurreikusi zuen, eta badirudi gramatika hori idatzi, idatzi zuela, eta gramatika horrekin batera, baita hizte-

gi bat ere. Baina Madrildik argitaratzeko baimenik ez zuen lortu.

Adituek diote, Iturriaga hil ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak Frantzisko Inazio Lardizabali eskatuko ziola egitasmoa burutzeko. Egitasmo horren ondorioa da, ziurrenik, *Gramática Vascongada*. Baita Lardizabalek eskuartean zituen beste bi lanak ere: hiztegi elebidun bat eta Iturriagaren solasen antzeko beste liburu bat, euskaratik gaztelaniara itzultzen erakusteko. Azken bi horiek (hau da, ele biko hiztegia eta itzulpenetarako materiala) ez ziren argitaratu, Lardizabal bat-batean hil zelako. Eta material haren lehengaiak ere ez dira inon gorde.

PROBINTZIAREN DELIBERAMENDUZ, GRAMATIKA ETA KONDAIRA ESKUTIK

1854an Batzar Nagusiek Donostian egin zuten bilaldiko erabakiei erreparatuz gero, argi ikusten da *Gramatikaz* gainera, «Compendio de la historia sagrada» ere



Zaldibiko Lardizabal eskola

harekin batera inprimatu eta banatzea erabaki zela: «acordó que tanto esta obra como la que el mismo autor habia escrito en idioma Vascongado con el título de “Compendio de la historia sagrada” se imprimiesen á costa de la Provincia». Gauza garrantzitsua ikusten da hor. «Compendio de la historia sagrada» dioenean *Testamentu Zarreco eta Berrico Condairaz* ari da. Lardizabalen bi lan nagusiak, beraz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aginduz eta hark ordainduta inprimatu eta banatu ziren.

Horrez gainera, 1854ko agiri hark gehiago ere badio: «Al propio tiempo se encargó á la Diputacion que al repartir dichas obras á los pueblos, tuviese cuidado de prevenirles que cuidasen de proveer á los maestros de instruccion primaria de sus respectivas localidades los ejemplares que necesitasen de la gramática Vascongada para generalizar la enseñanza de la lengua Vascongada». Dokumentu horien arabera, Probintziak agindua eman zuenean lehen hezkuntzako eskola-maisuak zituen buruan. Probintziaren helburua oso argia zen: «para generalizar la enseñanza de la lengua Vascongada».

ITZ-AURREA.

Nere euscaldun maiteac : Guizonaren gaiztaqueriari atear isteco, bide onenelatic bat, deritzat, Jaungoicoac guizonagatic eguin duena, jaquilea dala. Eguiac, nor guizonaganaco Jaungoicoaren amorioa ezagutcen duena, Jaungoicoac guizonaren alde eguin izan dituen mirari andiac daqui: zquiena, jarrieco da berari min ematen, eta contra eguiten, aren agindun santuac autsiac? Guciz esquer-gabea, eta dollora izan bear da, alaco erantzupidea ain Onguille oparoarequin gordelceco. Argatic Elizaco guraso santuac beti leyatu izan dira, Jaun-Eguilleaganaco esquer-ona Cristaïen biotzetan sarerazotzen, beguien aurean ipintcen diezleela artu izan dituzten mesedec, eta esqueñtzen diezten zori-onac: eta, ara emen, nere lanari eguleco izan nuen eresia, aguerthuric. Itseuntza gucielan diuntze beren liburüac, eracusten diezteenac, Jaungoicoac eguin dituela, Escritura Santac dion, gauza miragarriac: eta zuec ere, nere erritar maiteac, mesede au mercei cenduten, ceron beguiacquin gucia arguiró cecusaten. Egua da, aita Fray Juan Antonio Ubillos-ec Apaiz Fleuri-ren escu-liburücho bat, cembat guertacari dacarzquiena, eman cizuela, euscarara ederqui itzulia; baña nai litzaquean baño laburragoa da. Francia-co Apaiz-Larregui-ç ere, orain iruroqueila amar urte diralaric, arguilaratu zuen TESTAMENTU ZARRECO ETA BERRICO HISTORIA-ren icenarequin liburu luçago bat, munduaren asierratic, Jesu-Cristo gure Jauna cerura igo zan arterañoco berriac cerbail cearoago eta zabalquiago ematen dituen; baña liburu onec ere, batetic Labori-euscaran ipiüia, bestetic zuen artean chil urria eta barana dalaco, dezuten ulsunea ez du, nai bezala, beleleen. Nic, bada, nere ez-jaguñari gogor eguiñic, artu nuen, Guipuzcoa-co nere euscaran berri bat ipintceco, eta arguilaratceco asmoa. Badaquit, nere lanac uls andiac izango dituela; ala-ere, beste obeto eguindaco eta ezarrilaco bat escuclaratcen dezuten bitartean, Jaungoicoaren obra miragarrien berriac ugari emango dizquizule, ceñac icusita, zuen biotzac, arriçcoac ezbadira, artuco dute, ain Onguille onarequin leyálar izateco gogo, nere nequearen sariric nayena izango dana. Jaungoicoari ala nai daquiola, beraren onraraco, eta animáen oneraco. Agur.

1854an Donostian egin ziren Batzar Nagusien aktak. Probintziak ordainduta Lardizabalen bi lanak inprimatzea erabaki zen

Helburu horrezaz gainera, besterik ere izan zezakeen, baina eskola-xede hori behintzat oso nabarmena zen.

Jakina da, *Gramática Vascongada* Probintziaren aginduz egin zuela Lardizabalek.

Garbi ez dagoena zera da: *Testamentu Zarreco eta Berrico Condaira* ere enkar-guz egin zen edota Lardizabalek lehendik bere kabuz egina zeukan. Nolanahi ere, une batetik aurrera trataera berbera eman zien Probintziak biei. Berak ordaindu zituen moldiztegiko gastuak, egileari (bere oinordekoei, Lardizabal hil berria baitzen) berak ordaindu zion lana eta herri guztietara banatu zituen bai Gramatika-ren eta bai Testamentuaren aleak. Baliteke, hasieran enkargu bi izatea. Bistan da,



Lardizabalen omenez bere jaiotetxean jarritako plaka

ordea, une batetik aurrera pakete berean joan zirela bata eta bestea.

1857an Deban izandako Batzar Nagusietan hartu ziren erabaki horiek guztiak:

- a) Lardizabal ordurako hila zenez, bere oinordekoei egin zitzaien liburuaren sortze-lanaren ordainketa. Ez zitzaien, ordea, gramatika-liburuaren sortze-gastua bakarrik ordaindu, horrena eta *Testamentu Zarreco eta Berrico Condairarena* baizik, biena batera alegia.
- b) Era berean, Donostiako Baroja etxeari gramatika-liburuaren inprimatze-gastu guztiak ordaindu zitzaizkion, eta Tolosako Gorosabel liburugileari *Testamentuarenak*.

Hau izango da, dakigularik, euskal ikas-materialaren alorreko lehenengo kasua, burutik burura herri-aginteen inizatibaz osatu eta garatu zena. Saio hori guztia, dudarik gabe, herri-aginteen garai hartako hizkuntza-politikaren barruan ulertu behar da.

BIDOGULEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco